

Mikel Gorrotxategi Nieto, euskaltzain urgazlea eta Euskaltzaindiaren Onomastika Batzordearen idazkariak,


ZIURTATZEN DU:

Urduñako udalak *Urduña/Orduña* izendapenarekin eginiko eskari-proposamena bat datorrela Euskaltzaindiak erabakitakoarekin.

Urduña/Orduña izendapenak betetzen ditu bai bi milagarreneko martxoaren zazpian herri izenaz Euskaltzaindiak emandako ebazpena (ikus *Euskera* 46, 2001-1, 201-202), bai bi mila eta lauko azaroaren 26an, Akademiak onartutako 141. Araua: *Herri-izenak: hurrenkera eta zeinu grafikoen erabilera* izenekoa. Arau honetan zehazten da, besteak beste, herri batek euskaraz izen bat eta erdaraz beste bat duenean eta biak elkarrekin erabili behar direnean, zehar-marra (/) baten bidez bereizirik jarriko direla, adibidez, agiri, izendegi, zerrenda, seinale eta antzekoetan; beraz, *Urduña/Orduña*. Euskarazko testu jarraituetan, ordea, emandako bi izen horietatik euskarari dagokiona soilik hartuko da; hortaz, *Urduñan dago aduana zaharra*.

Eta hala adierazteko, eta bertako Udalbatzari bidaltzeko, izenpetzen du Bilbon bi mila eta zazpiko maiatzaren hamaseian.

Ontzat emana

A handwritten signature in black ink, appearing to read 'Andres Iñigo', written over a horizontal line.

Andres Iñigo Ariztegi,
batzordeburua